

espazio horretatik botatzeko aukera jasota du agiriak.

Ondoren, erasoaren berri Udaltzaingoak izan behar du. Deitu eta gero, eraso jasan duen emakumeak zer pauso eman nahi duen ez badu erabakitzen, 112 eta 629 434 847 telefono zenbakietara deitzeko aukera bada goela adierazita dago jarraibideetan.

Azkenik, «Udaltzaingoaren parte hartzerik ez bada izan», hurrengo egunean edo ahalik eta lasterren, herriko Udaltzaingoarekin harremanean jartzeko eskatzen du protokoloak.

Neurri sorta horrez gain, herriko leku esanguratsuenetan pankartak ipiniko dituzte. Herriko tabernariei ere gutun bat bidali die udalak, erasoren baten aurrean kontuan hartu beharreko irizpideekin.

Horrez gain, jaiak euskaraz bizi ditzatela esan diete lezoarrei jai batzordeko kideek.

Lezon Ondo Ai Gea

Birziklatzearen aldeko eta errausketaren aurkako kanpaina abiatuko du Mendekoste Jaiekin batera Lezon Ondo Ai gea taldea. Altamiran ezarrita dagoen eta herri osora zabaltzearen honakak biltzeko bost edukiontzien sistemaren emaitzekin kezkatuta dago taldea, horregatik kanpaina.

Gu birziklatuz zoriotsuago izenburukoa da kanpaina. Lezon bizi eta beraien zintzilikarioa mantendu nahi duten familiek eskaera sinatuko dute udalaren aurkezteko horren barruan. Horrekin batera, zintzilikarioetan itsasteko pegatinak banatuko ditu taldeak. Bihar, gainera, Tiñelu elkarteak Sagardo Eguna zabaltzeko aukera eman die.

Bestalde, hilaren 16an (ostirala da), *Lezon %80 birziklatu. Errausketarik ez!* lelopean giza katea egingo dute, plazatik 19:00etan hasita.

isaiz@hitza.eus

Kirol egokitua, bigarren urtez Bekoerrotan

Mendekoste jaietan, bigarrenez, kirol egokituaren aldeko apustua egin dute. Etsizako, 10:00etatik aurrera, pala partidak antolatu dituzte.

Iazko esperientzia «bikaina» izan zen, eta ekitaldi hori sustatu nahi izan dute, Xanti Valen hitzetan. Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin batera antolatu dute saioa. Bekoerrotan kiroldegian izango dira pala partidak.

Horrelako jarduerak egitea «beharrezkoa» da Kultura Sailko teknikariarentzat, eta hementik aurrera gisa horretako saio gehiago egingo dituztela argi dute. Pala partidaren ostean, haur eta gaztetxoentzat pintxo lehiaketa egingo dute.

22

ERAGILE

Aurtengo Mendekoste Jaieko antolaketan Lezoko 22 eragile, talde eta elkarteak parte hartu dute. Musika, gastronomia, kultur eta dantza eragileak izan dira jai batzordean parte hartu dutenak.

Egitaraua

GAUR

17:45. Zabarre pirataren ongietorria Lezoko kaian. Oharra: jendea mozarrotuta etortzea eskatzen dute.

19:00. Zabarre udaletxeko atarira iritsiko da. Jarraian, pirata txikiak hasiera emango diote jaiari pregoiaren irakurketarekin. Ondoren, Murixkaren agurra eta buruhandi eta erraldoien kalejira Munttar txistulari taldearekin.

19:45. Hondarribiko Kasino Zaharra eta Lezoko Aiton Bordako abesbatzen emanaldia Gezala Auditoriumean.

20:00. Preso eta iheslariaren aldeko kartelada. Ondoren, Lezoko Gazte Asanbladaren afaria Karlos Saldide plazan. Amaieran, Eonian elektrotxuflaren emanaldia.

21:00. Piraten afari autogestionatua Gurutze Santuaren plazan. Amaieran, DJ Ikerren musika saioa.

BIHAR

09:30. Diana herrian zehar eskualdeko dultzaineroekin.

09:30. Motozaleen elkarretaraztea Lezotarra tabernaren ondoan. Jarraian, eskualdeko herriak zeharkatuko dituzte.

11:00. Puzgarriak eta jolas parkea Lopenen (eguraldi txarra

eginez gero, kiroldegiko frontoian).

12:00. Buruhandi eta erraldoien kalejira Munttar txistulari taldearekin Bekoerrotan kiroldegitik abiatuta.

12:00. XX. mende hasierako erromerien dantzak herrian zehar Lezoko Dantzazaleak taldearen eskutik.

13:00. Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskolako banda eta Lezoko Dantzazaleen emanaldia Gurutze Santuaren plazan.

14:00. Motozaleen bazkaria Tiñelu ondoko plazan. Bitartean, motoak ikusgai.

16:00. Puzgarriak eta jolas parkea Lopenen (eguraldi txarrekin Bekoerrotako pilotalekuan).

16:00. Truk txapelketa Tiñelu elkarteak.

17:00. Poneyak eta herri jolasak haur eta helduentzat, DJ baten animazioarekin, Tiñelu ondoko plazan.

18:00. XIX. Sagardo Eguna Gurutze Santuaren plazan Tiñelu elkarteak antolatua (eguraldi txarrekin, Karlos Saldide plazan).

Hasieran, Lezon Ondo Ai Gearen zabaltze ekitaldia, eta Lezoko Dantzaleen *Mahai gainero* dantza.

19:00. Buruhandi eta erraldoien kalejira Munttar txistulari taldearekin Bekoerrotan kiroldegitik abiatuta.

20:00. Itsaso eta Irune Trikitila-

rien emanaldia Gurutze Santuaren plazan.

22:00. Zezen suzkoa Gurutze Santuaren plazan.

23:00. Usurbilgo Musika Eskolako pop-rock taldeen emanaldia Karlos Saldide plazan.

ETZI

09:30. Diana herrian zehar eskualdeko dultzaineroekin.

10:00. Kirol egokituko pala partidak Bekoerrotan kiroldegiko frontoian.

10:30. Pintxo lehiaketa haur eta gaztetxoentzat Karlos Saldide plazan.

12:00. Herri kirolen erakustaldia Gurutze Santuaren plazan. Joseba Ostolaza harriaren eta Manolo Kañamaren eta Fausto Mugerza aitzakora lanetan.

12:00. Buruhandi eta erraldoien kalejira Munttar txistulari taldearekin Karlos Saldide plazatik abiatuta.

17:00. *Altxorraren bila* jolasa. Irteera Gurutze Santuaren plazatik. Jarraian, herri kirolak haurrentzat Goiko Plazan.

18:00. Murixkaren 50. urteurreneko ekitaldiaren bideo emanaldia Gezala Auditoriumean.

19:00. Gabezin taldearen kontzertua eta dantzaldia Gurutze Santuaren plazan.

21:45. Zezen suzkoa Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskolako bandarekin Gurutze Santuaren plazan.



Garbiketaren profesionalak

943 260 860

Iturrin kalea, 108 poligonoa . 20100 Lezo
info@limpiezastxindoki.com . www.limpiezastxindoki.com



FINKEN
KUDEAKETA
INTEGRALA

ABOKATUAK

✠ Juan Luis Urkizu Urretabizkaia

✠ Jose Ramon Perez Bendaña

Aralar kalea 2, behea . 20100 LEZO . 943 34 40 21

KAIA DE
J A T E T X E A

Eguneko menua / Eguneko menu berezia
Dastapen menuak / Ospakizun menuak



Polentzarrene, 6 Lezo / 943512003

www.lezokokaialde.eu



ariz

. arropa denda .
. ile-apaindegia .

Kale nagusia 18
20100 Lezo
943 04 99 01

arizdenda